

Ahozko ulermena, adierazpena eta elkarrekintza I

8 saio

16 ordu

14 ikasgelan

**KONPROMISOAK COMPROMISOS****KOORDINATZAILEAK**

- Partaideen beharrak jaso eta guri helarazi.
- Erabakiak idatziz jaso azken dokumentua eratzeko.
- Irakasle taldeak antolatu eta dinamizatu.

IRAKASLEAK

- Proposamenak diseinatu eta gelan aplikatu
- Ikasleen ebaluazioa eta behaketa egin
- Praktikaren ebidentzia jaso: bideo, ikasleen lanak,
- Taldeetan partaide aktibo izatea.

**HELBURUAK OBJETIVOS**

- Ikasleen hasierako ebaluazioa edo ebaluazio diagnostikoa egitea eta errubrikak edota behaketa fitxak erabiltzea bai ahozko ulermenerako zein ekoizpenerako.
- Irakasleen praktikaren diagnostikoa ahozko lanketari begira egitea.
- Ikasleen arteko elkarrekintza bultzatzeko hainbat jarduera esperimintatzea eta baloratzea.
- Ahozko tailerra martxan jartzea.
- Ahozko diskurtsoak lantzeko prozedura ezagutzea bai ulermen prozesuetan zein ekoizpenetan.
- Sekuentzia didaktikoa bat diseinatzeko urratsak ezagutzea eta gelan inplementatzea.

**EDUKIAK CONTENIDOS**

- Ahozko diskurtsoak: monologalak eta dialogalak (elkarreragina) eta euren ezaugarriak
- Diskurtso prestatuak eta bat-batekoak
- Diskurtsoaren planifikazioa: informazioa/planifikazioa/entsegua/autorregulazioa/aurkezpena/ebaluazioa
- Ahoskera, intonazioa, etenak, gorputz hizkuntza
- Diskurtsoen lanketarako adibideak eta estrategiak
- Proposamenak planifikatzeko diseinatzeko eskemak
- Zuzenketak eta akats fosilizatuak.
- Ebaluatze tresnak: errubrikak, ...

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE EVALUACIÓN**

- Formazio edo informazio saioak burutu dira.
- Elkarrekintza lantzeko jarduera batzuk esperimintatu dira.
- Maila guztietan ahozko tailerra abian jarri da.
- Diskurtsoak lantzeko sekuentzia didaktiko bat gutxienez esperimintatu da ulermenerako zein ekoizpenerako jarduerak txertatuz eta behar den prozedura aplikatuz.
- Akatsak zuzentzeko teknika ezberdinak ezagutu dira eta akats fosilizatuei erantzuteko estrategia bateratua adostu da.
- Ebaluaziorako errubrikak edota behaketa orriak erabili dira.